

Iñaki Murua

Udalak subkontratatu!?

A

zpikontratatu esan beharko omen nuke baina, azpi aurrizki moduan erabiltzea gogorregi gertatzen zait: azpijoko, azpikeria... eta gainera guk azpiak edo simaurrak atera eta bota egiten genituen, base-rietan. Orain ere ateratzen dituzte batzuk –bistara– eta beste batzuek kontratatu, baina prostituzio kutsua hartzen duelakoan, inork gaizki ulertu eta minik har ez dezan, sub jarri dut. Barka atrebentzia!

Nik, udalaren funtziorik interesgarriena herri dinamika sortzean dakusat; herritarrak zertan hartan lanean jartzean eta ez hainbeste obrak egin eta sekulako jaiak prestatzean, denon dirua erabiliz. Bai, denok dugu estimuan kostatzen zaigun hura eta beste gabe aurrean, eginda, jartzen digutena, akaso, aintzat hartu ere ez dugu egiten.

Bada, duela hogeitau urte inguru hasita ari naiz ohartzen, udalen helburuetako bat horixe dela, dena eginda ematea egiten parte hartzeko aukera eskaintzea baino. Batzuetan interesagatik eta besteetan irudimen ezaren eraginez. Harriduraz jakin nuen Bizkaiko Enkarterrietan Olentzeroa ere subkontratatu egiten zutela –dutela?–, nahiz eta herriko euskara taldeak bereak eta bi egin ekintza bere gain hartzeko. Nonbait, euskara talde hark burututako Olentzeroak arrakasta eta iraupena ziurtatzen zituen baina ez zen ongi ezkontzen udalak ohituraz diru kontuak egiteko zeukan burokrazia eta ereduarekin eta, gainera, buruhauste gehiago sortzen zuen subkontratatu dena bere gain hartzen zuen enpresak baino, nahiz eta hark gehiago kobratu.

Gipuzkoako Goierrin, herri txiki bateko jaietan, igande eguerdiz, lehenengo nire belarriek topo egin zuten herriko plazan erdara eta euskara txandakatu ari zen aurkezlearekin. Herritar denek euskara ulertu ez ezik egin ere hark baino bikainago egiten zuten lekuan, bertako zein ari ote zen erdaraz ikustera hurbiltzean, nire begiek ezezagun batekin topo egin zuten. Harrijasotzaile nafar euskaldunekin; aizkolari gipuzkoar euskaldunekin eta oilar-poni-ahari... dantzan zerabiltzan euskaldun arabar-



DANI BLANCO

tu batekin eta han bildu ziren herritar talde-
txoarekin nire hizkuntzan aritu nintzen. Ez
zitzaidan buruan kabitzen herri hartan jaialdi
hura subkontrata bidez ekarri izana. Ez
zegoen bada esataririk bertan kanpora bila
joan beharrik gabe! Eta, besteekin nahasian,
saltsa jartzeko adinako kirolariak ere bai,
noski. Baina herritarrak –ez askorik, egia
esan– begiratzera eta tarteka txalo jotzera
etorriak ziren. Ezin zuten besterik egin.

Bi adibide hauez gain beste sail bat ere
ikusitakoak izan ditut: udal ordezkari
hauek nola lortu nahi dute herriak parte
hartzea? Ikusleak hurbiltzea, partaide denak
kristo etxeak izanda? Zergatik gastatzen
dute hainbeste diru “izenetan”, herritarren
arteko apustu eta desafioak merkeago eta
interes gehiago pizten dutenak direla jakinda?
Nola sortu nahi dituzte kirolariak? Esatariak?
Aurkezleak? Antolatzaileak? Herritar ardura-
tsuak? Herriko ekintzetan bustiko diren gaz-
teak? Zinegotzi berriak? Herritarren arteko
harremanak estutzea? Hau halakoren alaba
dela eta beste hura holakoren maitalea dela
ezagutzea? Koadrilak sendotzea eta ekintzak
proposa ditzaten lortzea? Azken batean, herri bizia?

Badakit nire ikuspegia hiri handietan berez itoko dela, baina han ere zerbait egiterik izango da, besterik ez bada auzoetan edo elkar-
teen artean edo koadrilaka edo...
Badakit nire ikuspegiak udal ordezkarien bizia konplikatzen duela, bai. Baina, hori begi bista-
koa da, karguak lana dakar –edo ekarri beharko luke! Eta, hobe litzateke lanak kargua ekartzea, baina tira...– eta horretara ez badoaz zertara doaz?

Begira, gure udaletako ordezkari gehienek jarrera aldatzen ez badute –eta uste dut egoera okerrera egiten ari dela, gai honetan bederen– nik haxe proposatzen dut: subkontrata ditzagun udal kudeatzaileak. Enpresek aurkez dezatela beren agintaldirako ekintza plan zehatza. Interesgarriena eta merkeena norena den bozka dezagun, eta beste obra denetan egiten den bezala, hitz emandakoa bete badute ordaindu eta bestela ez. Garbiagoa litzateke eta denok jakingo genuke zertaz ari garen. ■

Gure udaletako ordezkari gehienek jarrera aldatzen ez badute –eta uste dut egoera okerrera egiten ari dela, gai honetan bederen– nik haxe proposatzen dut: subkontrata ditzagun udal kudeatzaileak